

21/11

irizpena

KARGU PUBLIKOAREN JOKABIDE KODEA
ETA HAREN BATERAEZINTASUNEN
ARAUBIDEA
arautzeko Lege Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2011ko abenduaren 23an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-46-2012



*i*rizpenda 21/11

I. SARRERA

2011ko azaroaren 17an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizia eta Herri-Administrazio Sailaren idatzi bat sartu zen. Bertan, “Kargu Publikoaren Jokabide Kodea eta haren bateraezintasunen araubidea arautzeko Legea”ren Aurreproiektuari buruzko argibideak eskatu ziren, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arau horren helburu orokorra haren aplikazio eremuan sartzen diren kargu publikoen jokabide kodea arautzen duten oinarriak eta interes publiko eta partikularren arteko gatazka egoerak saihestu edo konpontzeko neurriak ezartzea da, interes orokorra nagusituko dela bermatuz beti. Halaber, bere aplikazio eremuari lotutako kargu publikoen bateraezintasun araubidea ezartzen du, betetzen duten eginkizun publikoan baino ez jardutearen oinarritik eratorrita.

Berehala bidali zitzairen agiriaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritziak igor zitzaizuten eta haiek dagokion lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu arautegian xedatutakoaren arabera. 2011ko abenduaren 15ean Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen Proiektu hau egin da, Batzordearen abenduaren 23ko osoko bilkurari igortzeko. Han, aho batez onartu da.

II. EDUKIAREN LABURPENA

Kargu Publikoaren Jokabide Kodea eta haren bateraezintasunen araubidea arautzeko Legea”ren Aurreproiektuak Arrazoen azalpena, 6 kapitulutan bildutako 33 artikulua, 4 xedapen gehigarri, 3 iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat dauzka. Laburbilduta, haren edukia honakoa da.

Arrazoen azalpena

I. kapitulua.- Helburua eta aplikazio eremua

1. artikulua. Helburua
2. artikulua. Aplikazio esparrua
3. artikulua. Aplikazio esparrurako salbuespenak
4. artikulua. Kargu publikoen katalogoa

II. kapitulua.- Kargu publikoen jokabide kodea zuzentzen duten oinarri orokorrak

21/11j

5. artikulua. Jarduteko oinarriak
6. artikulua. Jokabide oinarriak
7. Artikulua. Interes arteko gatazka
8. artikulua. Eskurik ez hartzeko betebeharra
9. artikulua. Arduraldi eskusiboa
10. artikulua. Ordainketa bakarra

III. kapitulua.- Kargu publikoen bateraezintasun araubidea

11. artikulua. Bateraezintasuna
12. artikulua. Bateragarritasuna jarduera pribatuekin
13. artikulua. Bateragarritasuna jarduera publikoekin
14. artikulua. Bateragarritasuna hautazko karguekin
15. artikulua. Bateragarritasuna unibertsitateko irakaskuntzarekin
16. artikulua. Bateragarritasun prozedurak
17. artikulua. Kargu publikoan amaitu ondorengo galarazpenak

IV. kapitulua.- Kargu publikoen betebeharrak

18. artikulua. Jardueren aitorpena
19. artikulua. Ondasunen eta ondare eskubideen aitorpena
20. artikulua. Ondare mugak sozietate partaidetzetan
21. artikulua. Balioen eta finantza aktiboen kontrola eta kudeaketa

V. kapitulua.- Legean xedatutako betebeharren kudeaketari buruz

- 22. artikulua. Interes arteko Gatazken bulegoa
- 23. artikulua. Jardueren eta Ondasun eta Ondare Eskubideen erregistroa
- 24. artikulua. Sailak
- 25. artikulua. Egiaztapena eta informazioa

VI. kapitulua.- Zehapen araubidea

- 26. artikulua. Arau-haustekak
- 27. artikulua. Zehapenak
- 28. artikulua. Kontratatzeko galarazpena
- 29. artikulua. Lehenagoko argibideak
- 30. artikulua. Zehapen prozedura
- 31. artikulua. Ebazpena
- 32. atala. Preskripzioa
- 33. artikulua. Beste erantzukizun batzuk

Xedapen gehigarriak

- Lehenengoa. Bateriaezintasunen iraupena
- Bigarrena. Izendapenak jakinarazi beharra
- Hirugarrena. Isilpean gorde beharra haustea
- Laugarrena. Etika eta gobernu onaren kodea

Xedapenak iragankorrak

- Lehenengoa. Lege hau indarrean sartu aurretik izendatutako kargu publikoen aitorpenak berritzea
- Bigarrena. Legea baino lehenago baimendutako bateragarritasunak
- Hirugarrena. Xedapen arautzaileen indarraldia

Xedapen indargabetzailea

Amaierako xedapena

Azalpena

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, kargu publikoen bateraezintasunari buruz, zenbait arau eratu dira. Haien hastapenean, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legea dago. Haren xede nagusia gardentasuna, eraginkortasuna eta eman zaizkien eginkizun publikoetan jardutea bermatzea izan da, baita haien independentzia edo inpartzialtasuna zalantzan jarri edo betebeharrak publikoak betetzeko ardura kaltetu dezakeen jarduera edo interes oro saihestea ere. Hori guztia, Konstituzioko 103.3 artikuluko xedapenetan kokatzen da, haren arabera legeak bateraezintasun sistema eta eginkizun publikoak betetzeko inpartzialtasunerako bermeak arautuko baititu.

21/11j

Lege honek bide horretan aurrera egin eta sakontzen du, eta kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, arautzen duen kontrol eta berme sisteman Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko sektore publikoan halako eginkizun publikoak betetzen dituztenen unibertso ahalik eta handiena biltzeko xedez. Halaber, interes orokorra nagusitzea bilatzen duten oinarriak, betebeharrak, bermeak, prozedurak eta zehapenak arautzen ditu.

Horrela, Legearen xedea eginkizun publiko horiek betetzen dituenak betebeharrak etiko bat eta gizarte betebeharrak bat betetzea da; izan ere, gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen bidezko konfiantza babestu nahi du.

I. kapitulua: Helburua eta aplikazio eremua (1. artikulutik 4.era)

Hasteko, helburuaren barruan kargu publikoen jokabide kodea zuzentzen duten oinarri orokorrak ezartzea, eta interesen arteko gatazkak sorlitzaketen arauak eta bateraezintasun araubidea arautzea biltzen dira, eta hori dena interes orokorra nagusitzea bermatuz.

Aplikazio eremuan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko sektore publikoarentzat diharduten kargu publiko guztiak sartzen dira. Baita Legean definitzen diren beste batzuk ere, euren izaeraren eta

eginkizunen arabera haien kideek xedatutako lege araubideari lotuta egon behar dutela ulertzen baldin bada. Horretarako, Lehendakaria, Jaurlaritzako kideak eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean jasotako administrazioko goi karguak sartu ez ezik, sektore publikoaren zerbitzura egonda, zuzendaritza eginkizunak edo antzekoak burutu eta publizitate eta norgehiagoka arauak zuzendutako hautapen prozesuetatik kanpo izendatzen den pertsona oro ere hedatzen dio bere aplikazio eremua Legeak.

Ñabardura batzuekin, gizarte, ekonomia edo kultura interesen parte hartze edo ordezkartza eginkizunak edo aholkularitza eta kontrol eginkizunak betetzen dituzten erakundeetako kideak ere sartzen dira. Halaber, sortzeko arauak funtzionalki Eusko Legebiltzarrari lotzen dituzten erakundeetako kideei ere aplikatuko zaie lege araubidea.

21/11

Arau orokorraren gainean, legearen aplikazio eremurako salbuespen batzuk zerrendatzen dira: xedatu denez, zehapen araubidea ez zaio Lehendakariari aplikatuko -izan ere, haren jarduketara Jaurlaritza bultzatu eta legebiltzarrak kontrolatzeko Ganberaren Arautegian xedatutako prozedurek zuzentzen dute-. Euren izateko funtsezko elementu eurak sortzeko araua izanda, han euren agintaldiaren iraupen jakin bat edo kargua utzi edo amaitzeko berariazko sistemak edo, orokorrean, euren erabakietan eta funtzionamenduan autonomia bermatzeko beste edozein metodo xedatuta dauzkaten erakundeetako kideei ere ez zaie aplikatuko.

Lurralde historikoetako foru erakundeetako eta haien sektore publikoko kargu publikoen bateraezintasun araubidea haiek euren araudian xedatutakoa izango da. Hala ere, lege honetako II. kapituluaren xedatutako oinarri orokorrak aplikatuko zaizkie. Bukatzeko, Lege hau ez zaie aplikatuko toki erakundeetako kide eta langileei, ezta haien sektore publikoetakoei.

Legearen garapen eta aplikazioan ziurtasun juridikoa eman asmoz, aurreikusita dago Jaurlaritzak kargu publikoen katalogoa onartzea. Hura izango da Lege honetan xedatutako araubide juridikoari lotuta

dauden kargu publikoen zerrenda identifikatzeko eta hari buruz informatzeko tresna.

II. kapitulua: Kargu publikoen jokabide kodea zuzentzen duten oinarri orokorrak (5. artikulutik 10.era)

Artikulu honen nahia babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren eredia aldarrikatu eta jakinaraztea izan ez ezik, testu arautzailea da eta, legearen indarrez, karguari dagokion eginkizun publikoa betetzeko bete behar diren betebeharrak xedatzen ditu.

21/11*i*

Jarduketa eta jokabide oinarriak bereizten dira. Lehenengoak zerbitzuaren etikari daude lotuago eta bigarrenak eskatu beharreko portaerari. 5. artikuluan jasotako jarduketa oinarriak honakoak dira:

1. Kargu publikoak betetzen dituztenek ordenamendu juridikoari lotuta eta hura betez burutuko dituzte emandako eginkizunak.
2. Hartzen dituzten erabakiek edo ekimenek interes publikoa betetzea bilatuko dute.
3. Eginkizun publikoa betetzerakoan, euren jarduketan inpartzialtasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna izan beharko dituzte gidari.
4. Euren erabakien eta ekintzen arduradunak izango dira eta euren karguaren arabera egokiak diren kontrolen pean jarri beharko dira.
5. Erabakiak eta ekimenak hartzerakoan gardentasun osoz jardun beharko dute, interes orokorrak eragindako salbuespeneko arrazoiak egon ezean.
6. Euren eginkizunak betetzerakoan egoera berdinean dauden pertsonak berdin hartu beharko dituzte, bereizkeriarik gabe.
7. Emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasuna sustatu eta bermatuko dute.
8. Haien jarduketek kultura ondarearen eta hizkuntza aniztasunaren babesarekin bat egin beharko dute, baita ingurumenaren babesarekin eta garapen iraunkorraren sustapenarekin ere.
9. Euren jarduketetan interes orokorrari eman behar diote lehentasuna

eta sor litekeen edozein gatazka konpontzeko behar diren neurriak hartu behar dituzte, betiere, interes publikoa babestuta, Lege honetan xedatutakoaren arabera.

10. Euren eginkizuna erakundeekiko leialtasunez bete eta oinarri hauek betetzea sustatu eta lagundu beharko dute.

Bestalde, jokabidekoak (6. artikulua) honakoak dira:

1. Ezingo du, bere buruz edo tarteko pertsona baten bidez, kargu publikoa izatea aipatu ezta hura erabili ezein jarduera egiterakoan, horrela gainontzeko herritarrentzako baino tratu edo baldintza hobeak lortu nahian.
2. Kargu publikoek, euren agintaldia iraun bitartean ez hura amaitu ondoren, ezingo dute erabili edo euren edo hirugarren pertsona baten onerako jakinarazi euren eginkizunak betez lortutako informazioa.
3. Euren betekizunak profesionaltasunez eta arduraz bete beharko dituzte, eta euren jarduketak helburuak lortzera zuzendu beharko dituzte. Edonola ere, euren eginkizunak eraginkortasunez beteko dituzte.
4. Ezingo dituzte onartu opariak, mesedeak, gonbidapenak edo zerbitzuak baldintza hobeagoetan, gizarte eta gizalege ohituretatik harago.
5. Kargu publikoak betetzen dituztenei Jaun/Anderea tratamendu ofiziala emango zaie, eta ondoren dagokien kargu, postu, maila edo lanbidearen izena.
6. Euren eginkizunak betetzeari atxikitako ondare publikoa behar den arduraz administratuko dute.

Eginkizun publikoa burutzerakoan aurrez aurre egon daitezkeen interesen arteko gatazken gaiari ere heltzen zaio. Ulertzen da, izatezko gertakizun batzuetan interes orokor edo publikoak eta zenbait interes pribatu lehian daudenean, kargu publikoak ez duela haietan esku edo parte hartu behar, eta ez jardute horren formalizazioa eta, egokia denean, horren berri izateko eskumena duen erakundea arautzen dira.

Bukatzeko, kapituluak kargu publikoaren araubidearen oinarriko alderdiak biltzen ditu: arduraldi eskusiboa eta ordainketa bakarra. Arduraldi eskusiboaren arabera, kargua betetzea bateraezina da beste edozein jarduerarekin, Legean bertan baimendutakoekin edo Jaurlaritzakinteres publikoko arrazoiengatik berariaz baimendutakoekin izan ezik. Bestalde, ordainketa bakarrak aurrekontu publikoetarako kargurako ordain oro jasotzea galarazten du, baita jarduera pribatu batetik datorren beste edozein ordainketa ere, arauan bertan xedatutako salbuespenak izan ezik. Galarazpen bera aplikatzen zaio eskubide pasiboan eta Gizarte Segurantzaren pentsioak jasotzeari, gizarte segurantzaren legedian sektore publikoko lanpostu bat betetzearekin bateragarritzat berariaz jotako jarduerak izan ezik.

21/11j

III. kapitulua: Kargu publikoen bateraezintasun araubidea (11. artikulutik 17.era)

Xedatutako oinarrien ostean eta haiek betez, jarduera bateragarriak tasatuta xedatzen dira. Legeak bete daitezkeen jardueren definizio zehatzaren bideari jarraitzen dio, eta gainontzekoak bateraezinak dira. Lau jarduera bateragarri mota bereizten dira: pribatuak, publikoak, hautazkoak eta irakaskuntza eta langile publikoen prestakuntzakoak. Haiek betetzeak ez du mugatu edo arriskuan jarri behar kargu publikoa betetzea eta ez du interes orokorra kaltetu behar.

Kargu publikoen jardueren izaera aztertu, ezagutu eta erabakitze eskumena identifikatzen da, baita, behar den kasuetan, hura betetzeko beharrezko baimena emateko eskumena ere. Horrela, kargu publiko batek bere eginkizunarekin bateragarritzat jotzen duen jarduera bat burutu nahi duenean, Interesen arteko Gatazken Bulegoari jakinaraziko dio idatziz, eta hark Jardueren eta Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroan idatziko du, informatzeko bakar-bakarrik.

Halaber, kargua utzi ondorengo urte bietan zenbait jarduera pribatu burutzeko galarazpena arautzen da. Jarduera horiek haiei ekin aurretik aitortu behar dira, erakunde eskudunak azter ditzan. Muga hori dela-eta, kargu publikoek, kargua utzi ondoren, ezingo dute zerbitzurik

eman ez lan edo merkataritza harremanik izan karguari dagozkion eginkizunak betetzeagatik harreman zuzena izan zuen enpresa edo sozietate pribatuekin.

Dena dela, izendatuak izan aurretik kargu publikoek euren jarduera enpresa, sozietate edo erakunde pribatuetan burutzen bazuten eta kargua utzi ondoren haietara itzultzen badira, ez dira galarazpen horretan sartuko haietan burutuko duten jarduera betetako kargu publikoaren eskumenei zuzenean lotuta ez dauden lanpostuetan burutuz gero.

IV. kapitulua: Kargu publikoen betebeharrak (18. artikulutik 21.era)

21/11 

Jarduerak, ondasunak eta ondare eskubideak aitortu beharrari heltzen zaio, Legearen aplikazio eremuan sartzen diren kargu publikoen eginkizunak betetzeko objektibotasuna eta inpartzialtasuna kontrolatu eta bermatzeko. Jardueren aitortpena eta ondasun eta ondare eskubideen aitortpena bereizten dira, eta haietako bakoitzaren beharrezko edukiak xedatzen dira.

Merkataritza sozietateetako ondare partaidetzei mugak jartzen zaizkie. Horrela, Legearen mendeko kargu publikoak betetzen dituztenek ezingo dute eduki, ez euren buruz ez ezkontidearekin batera, zein ere den ezkontza araubidea, ez izatezko bikotearekin, mendeko seme-alabekin eta tutoretzapeko pertsonekin, %10etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetzarik autonomia erkidegoko sektore publikoarekin edozein motatako itunak edo kontratuak dauzkaten, edo halako enpresen azpikontratastak diren, edo edozein sektore publikoren dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresetan. Artikulu honetan araututako ondare egoerak eta partaidetzen besterentzea Interesen arteko Gatazken Bulegoari aitortuko zaizkio Jardueren eta Ondasun eta Ondare Eskubideen Erregistroan idazteko.

Halaber, haiek egiten dituzten merkataritza sozietateak arautzeko, ikuskatzeko edo kontrolatzeko eskumenak dituzten karguak betetzen

dituztenen balioen eta finantza aktiboen kontrola eta kudeaketa bermatzeko prozedura arautzen da.

V. kapitulua: Legean xedatutako betebeharren kudeaketari buruz (22. artikulutik 25.era)

Legean xedatutako betebeharrak kudeatu eta kontrolatzeko erakundeak arautzen dira. Hasteko, Interesen arteko Gatazken Bulegoa sortzen da, kargu publikoen katalogoaren, bateraezintasun araubidearen eta Lege honetan kargu publikoan ezarritako betebeharren kudeaketa administratiboaren erakunde arduradun.

21/11*i*

Bulego horren mendekoa da Jardueren eta Ondasun eta Ondare Eskubideen Erregistroa, Lege honetan kargu publikoei ezarritako aitopenak eta agiri betebeharrak gorde, artxibatu, zaindu, inskribatu eta, beharrezkoa denean, informatu eta frogatzeko.

Kapitulua, bestalde, Legebiltzarrari argibideak eman beharra jasotzen du. Horrela, Jaurlaritzak sei hilean behin eman beharko dizkio argibideak Legebiltzarrari kargu publikoek Lege honetan xedatutako betebeharrak bete dituzten mailari buruz.

VI. Kapituluak: Zehapen araubidea (26. artikulutik 33.era)

Azkenik, kapitulu honek Legea urratzearen aurreko zehapen araubideari buruzko alderdiak arautzen ditu.

Bestelako erantzukizunak gorabehera, balizko arau haustea tipifikatzen dira. Halakoak Lege urraketak berariaz aitortuz zehatuko dira eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Halaber, zehapenak neurri osagarriak ekar litzake, hala nola betetzen diren kargu publikoetan kargugabetzea, kargua utzi ondoren sortutako pensio osoa edo zati bat jasotzeko eskubidea galtzea eta behar gabe jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

Interesen arteko Gatazken Bulegoak, zehapen espedientea hasi

aurretik, informazioko jarduketa erreserbatuak egin ahalko ditu, zantzuen arabera espedientea zabaltzea justifikatzen duten inguruabarrak gertatu diren erabakitzeko. Era berean, Balizko lege urraketei buruz egin litezkeen salaketak aztertu eta egokia bada lehenagoko aipatu informazioak egingo ditu.

Beste xedapen batzuk

Xedapen Gehigarriek, kargu batzuen espezifikotasunari, sektore publikoko erakundeek egiten dituzten izendapenen berri emateko agintzeari eta funtzio publikoaren diziplina araudia Legea aplikatzen zaizkion erakundeen zerbitzurako langile publikoei ezarritako isilpeko betebeharrari egokitzeari begira, beste lege batzuetan xedatutako bateraezintasunen iraupeneko oinarria xedatzen dute.

Xedapen Iragankorrek Legearen aurretik indarrean zegoen araubidearen arabera egindako aitorpenak berri beharra, indarrean sartu aurretik baimendutako bateragarritasunak berrikustea eta zenbait xedapenen aldi baterako iraunaldia xedatzen dituzte.

Xedapen Indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du, zehazki, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan eginkizun publikoak betetzeagatiko bateraezintasunei buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legea.

Azken Xedapenak Legea indarrean sartzea ezartzen du.

III. GOGOETA OROKORRAK

Kargu publikoaren erabakiak eta ekintzak gizartearen premiak eta interesak betetzera zuzendu behar dira, guztien ongizateak kanpoko interes partikularren gainetik. Kargu publikoak ezin du onartu bere erabakietan eta jokabidean pertsona edo talde batzuen kalte edo onerako eta gizartearen ongizatearen kaltetan egin dezaketen interesek eragina izan dezaten. On komunarekiko konpromisoak esan nahi du barneratu behar dela zerbitzu publikoa herritarren ondarea

dela eta haren misioak gizarte eskaerak ase nahi direnean baino ez duela zilegitasuna lortzen.

Kargu Publikoaren Jokabide Kodea arautzeko Legearen Aurreproiektuaren eta haren bateraezintasun araubidearen helburu nagusia kargu publikoen inpartzialtasuna ezartzeko neurriak xedatzea, eta haien lan arlotik kanpoko jarduerak haren eginkizun eta betebeharrak inpartzialtasunez betetzean gizarteak duen konfiantza murrizten ez dutela bermatzea da. Horretarako, kargu publiko baten postuaren funtsa eratzen duten oinarri etikoak definitu eta ikuskatzeko tresnak eta zehatzeko prozedura ezartzen dira. Xede horiek direla-eta, Batzorde honek ondo deritzo arauari.

21/11j

Bat gatoz esateko, bere izaeragatik beragatik, kargu publikoa konfiantzazko kargua dela eta haren jarduera interes publikoaren alde jarduteko printzipioak zuzendu behar duela. Horren ondorioz, jarduera zuzendu behar duten oinarriak honakoak dira: zintzotasuna, ardura, justizia, inpartzialtasuna eta jarduketa eraginkorra.

Bereziki araua une egokian etortzea baloratzen dugu. Izan ere, administrazioaren kargu publikoen bateraezintasun araubideak arauketa berria behar du, jarduera publikoan gardentasun handiagoa eskatzen duten herritarren kezkarri erantzuteko. Egungo araua, bateraezintasunei buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legea, eguneratu beharra dago. Halaber, baloratzen dugu aurkeztu zaigun Legea bateraezintasun araubidetik harago joan eta jokabide kodea ere arautzea¹.

Hala ere, eta horrela jaso da Irizpen honetako gogoeta zehatzetan, kezkatuta gaude garrantzitsua deritzogun alderdi bategatik: Kargu publikoei pizgarriak ordaintzea zehatzago arautu behar litzateke.

¹ Europar Batasunak berak, 2011ko apirilean, bere komisarioen jokabide kodearen berrikusketa onartu du, interesen arteko gatazkak saihestu eta opari eta bezuzei buruzko arau argiagoak emateko.

Halaber, aurreproiektua irakurrita sortu zaizkigun zalantza batzuk jasota utzi nahi ditugu.

Hasteko, Arrazoen azalpenak, ulertzeko zailak izan daitezkeen Legearen alderdi batzuk argitu beharrian, xedapenetan erantzun barik geratzen diren zalantzak sortzen ditu. Adibidez, 4. orrialdean behin-behineko langileei emandako tratamendua aipatuko dugu (Arrazoen azalpenak dio arauak eragiten diola, baina ondoren ez da dagokion artikuluan aipatzen eta, gainera, Lege Aurreproiektuarekin batera jasotako Azalpen Txostenak berariaz dio langile horiek arau honen irismenetik at gelditzen direla).

Era berean, Batzorde honen aburuz, komenigarria litzateke gai garrantzitsu batzuk argiago arautzea, hala nola ez jarduteko betebeharraren kasuak (8. artikulua) edo arduraldi eskusiborako salbuespenak (9. artikulua) eta ordainketa bakarra (10. artikulua), haiek irakurri eta interpretatzea zaila baita.

21/11 

IV. GOGOETA ZEHATZAK

Arrazoen azalpena

Arrazoen azalpeneko hirugarren paragrafoa honela osatzea gomendatzen da:

“Horrela, Legearen xedea eginkizun publiko horiek betetzen dituenak betebeharratik eta gizarte betebeharratik betetzea da; izan ere, gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen bidezko konfiantza eta bizi publikoan duen jarduketaren gardentasuna babestu nahi ditu”.

Arrazoa da aurkeztutako aurreproiektuaren zati batek jarduera pribatuen eta publikoen arteko harremanaz diharduela, eta horregatik uste dugu hitz horiek sartu behar direla.

1. artikulua. Helburua

Lehenbizi, artikulua honetako **2. idatz-zatiaren** idazketa jarraian adierazi legez osatzea gomendatzen da, uste baitugu idazketa hau zehatzagoa dela eta 7. artikuluan interesen arteko gatazkari emandako definizioari lotzen zaiola:

“2. ~~Interesen publiko eta partikularren~~ arteko gatazka haien prebenitu, saihestu edo konpontzea bilatzen duten neurriak ere xedatzen ditu, interes orokorra nagusitzen dela bermatuz”.

21/11j

Halaber, artikulua horretako 3. idatz-zatia honela osatzea iradokitzen dugu:

“3. Lege honek bere aplikazio eremuari lotutako kargu publikoen bateraezintasun araubidea ezartzen du, betetzen duten eginkizun publikoan baino ez jardutearen oinarritik eratorrita, baita jardueren, ondasunen eta interesen aitorpena ere”...

Arrazoa da, kargu publikoei eragin liezaieketen bateraezintasunak ez ezik, haien betebeharrak ere arautzen direla eta, haien artean, jardueren, ondasunen eta interesen aitorpena nabarmentzen dela. Beste aukera bat “haien betebeharrak” baino ez aipatzea litzateke, baina gaizki ulertuak ekar litzake.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Hasteko, Lege aurreproiektuaren Azalpen Txostenak dioenez, artikulua honi dagokionez, *“indargabetutako Proiektuan ez bezala, kargu eta erakunde jakin batzuk zerrendatzea saihestu nahi da, beti baitaude iraungitzearen pean. Kargu publikoaren definizio neurtua behar da, dagokion kasuaren arabera, figura horretan bat egin behar duten funtsezko baldintzak uztartuta eginda: Zuzendaritza eginkizuna edo antzekoa, konfiantzaren arabera eta lehia prozeduratik kanpo egindako izendapena eta, erakundearen arabera, ordainketa iraunkorra (ez kalte-ordainetako dietak ordaintzen direnean) Aurrekontu Orokorretan jasotako kredituetara zordunduta”.*

Gure ustez, artikulua honetako a), b) eta c) puntuetan helburua lortzen bada ere, ez da gauza bera lortzen d) eta e) idatz-zatietan, eta ulergaitzak dira. Haiek hitz argi eta zehatzagoekin sinpletzea komeni litzateke.

1.a) idatz-zatiari dagokionez, honakoa eranstea iradokitzen da: “Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 17. artikuluan xedatutakoaren arabera”.

Artikulu honek honakoa dio: *“Jaurlaritza Lehendakariak eta hark izendatutako sailburuek osatzen dute. Haien artean Lehen lehendakariorde bat eta Lehendakariorde bat edo batzuk izendatu ahalko ditu, egokia baderitzo”*; beraz, uste dugu hura berariaz aipatu behar dela.

21/11

Halaber, **1.c) idatz-zatirako** honako idazketa gomendatzen da:

“ c) Euskadiko Ogasun Nagusia Ordenatzeko Arauen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 7 artikuluan jasotako erakundeek osatutako administrazio instituzionaleko eta gainontzeko sektore publikoko langileak...”

Legegintzako Dekretu horrek administrazio instituzionaltzat zer ulertzen den eta zer erakundeek osatzen duten definitzen du eta, beraz, komenigarria da hura berariaz aipatzea.

3. artikulua. Legearen aplikazio eremurako salbuespenak

Hasteko, uste dugu komenigarria dela 1. idatz-zatiaren idazketa jarraian adierazi legez jasotzea, aipatzen den arauketa zehazteko:

“1. Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeko IV. Kapituluaren xedatutako sistemaren arabera, hura hautatu, eten, kargutik kendu edo ordeztzeko, Lehendakariari ez zaio aplikatuko Lege honetako VI. Kapituluaren araututako zehapen araubidea...”

Halaber, artikulua honetako **2. idatz-zatiari** dagokionez, haren hitzetatik ondoriozta daiteke erakunde haietan arau-hauste eta zehapen araubide bat egongo dela, baina uste dugu hobe dela hori aurreproiektuaren testuan berariaz jasota egotea. Horrela, idatz-zatiaren amaieran honakoa eranstea gomendatzen da: “... Hala ere, prozedura horiek arau-hauste eta zehapen araubidea ezarri beharko dute”.

5. artikulua. Jarduteko oinarriak

Artikulu honetan jasotako jarduteko oinarriak indartzeko, 3, 4 eta 6 idatz-zatien idazketa jarraian adierazi legez osatzea gomendatzen dugu:

“3. Eginkizun publikoa betetzerakoan inpartzialtasunak, neutraltasunak eta objektibotasunak gidatu beharko dituzte, eta alde batera utzi beharko dute norberaren, familiaren edo korporazioen jarrerak adierazten duen eragile oro.”

4. Euren erabakien eta ekintzen arduradunak izango dira, arrazoirik gabe mendekoengana bideratu gabe, eta euren karguaren arabera egokiak diren kontrolen pean jarri beharko dira.”

6. Euren eginkizunak betetzerakoan egoera berdinean dauden pertsonak berdin hartu beharko dituzte, izaera edo egoera pertsonal edo sozialagatik bereizkeriarik egin gabe”.”

6. artikulua. Jokabide oinarriak

Komenigarria deritzogu 2. puntuko idazketa honela osatzeari:

“2. Kargu publikoek, euren agintaldia iraun bitartean ez hura amaitu ondoren, ezingo dute erabili edo euren edo hirugarren pertsona baten onerako jakinarazi euren eginkizunak betez”.

lortutako informazioa, eta euren karguagatik ezagutzen dituzten datuen erreserba eta diskrezioa gorde beharko dituzte”.

Gehitutakoaren arrazoa da informazioa, norberaren onerako ez ezik, beste pertsonen onerako ere ez erabiltzea komeni dela.

8. artikulua. Eskurik ez hartzeko betebeharra

Gure iritziz, artikulua honen izenburuak “Eskurik ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra” izan behar luke, hura ere arautzen delako. Horrela xedatzen da Estatuko araudian (Gobernu kideen eta Estatuaren Administrazio Nagusiko Goi Karguen interesen arteko gatazkak arautzeko apirilaren 10eko 5/2006 Legea).

21/11 

Inhibitzeak “eten edo galarazi” esan nahi du eta beste erakunde batek egiten du. Horren berri izanez gero, inhibitzioa agindu beharko da eta, beraz, betebeharrak definitu eta izenburuan jasotzeko behar da.

10.2. artikulua. Ordainketa bakarra

Lehenbizi, uste dugu artikulua honen izenburuk gaizki ulertzera daramala. Izan ere, kargu publikoen “ordainketa bakarra” aipatzen du, baina ondoren, besteak beste, kasu batzuetan pizgarriak ordaintzeaz hitz egiten du.

Pizgarriei dagokienez, Gogoeta Orokorretan adierazi dugunez, kezkatu egiten gaitu kargu publikoek pizgarriak jasotzeko ahal izateak, jasotzeko behar bezala araututa egon barik, eta, beraz, aukera hori behar bezala definitzea, mailakatzea eta kontrolatzea gomendatzen dugu, behar den arau garapenaren bidez.

Definizioak berak dioenez, pizgarria helburu batzuk lortzeagatik ulertzen da. Definizioz, kargu publikoaren eginkizuna helburu horiek lortzea da, pizgarri bakarra on komuna izanik.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak esan du zenbait pizgarrik ez daukatela tokirik kargu publikoen kasuan, eta ikuskatze txosten batean² zalantzan jarri du ordainketa sistema hori goi karguen kasuan. Haren iritzi, praktika horrek indarrean dagoen legediaren 'aurka' egiten du, bai foru esparruan bai estatukoan, profesional horien ordainketa 'kontzeptu bakarragatik' egin behar dela xedatzen baitu.

12. artikulua. Bateragarritasuna jarduera pribatuekin

Artikulu honetako 1.d) idatz-zatiaren idazketa osatzea gomendatzen dugu, gizarte jarduerekin batera kulturalak ere sartzeko:

21/11j

“d) Irabazio asmorik gabeko fundazio, elkarte edo erakundeetan ordainketarik gabe parte hartzea eta gizarte edo kultura interesa duten edo gizarte balioak sustatzen dituzten jarduerak burutzea”.

15.1. artikulua. Bateragarritasuna irakaskuntzarekin eta langile publikoen prestakuntzarekin

Lehen idatz-zatiaren idazketa honela aldatzea proposatzen dugu:

“1. Lege honen aplikazio eremuan sartzen diren kargu publikoek euren eginkizunak goi-mailako irakaskuntzan ~~ordainduta~~ irakastearekin bateratu ahalko dituzte, horrek euren ardura kaltetzen ez badu ~~eta, edonola ere, urtean ehun eskola-ordu gehienez ere~~”.

Arrazoa da, gure aburuz, irakaskuntza eta kargu publiko bat betetzea bateratu ahal izatea, eta irakaskuntza hori burutzeko baldintzak, kasuz kasu aztertu behar direla.

² HKEEren osoko bilkurak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2005eko ekitaldiko kontu orokorra ikuskatzeko txostena onartzeko 2007ko irailaren 27ko saioan hartutako Erabakiak honakoa xedatzen du: “goi karguei 0,04 milioiko pizgarri hori esleitzeak 4/1989 FAko 1. artikulua eta 14/1988 Legeko 2. artikulua aurka egiten du. Izan ere, haren arabera goi karguen ordainketa kontzeptu bakarragatik egiten da eta, beraz, ez dauka tokirik produktibitate pizgarriaren kontzeptak”.

17.2. artikulua. Kargu publikoan amaitu ondorengo galarazpenak

Batzorde honek 17. artikuluko bigarren idatz-zatia honela osatzea gomendatzen du:

“2. ... harreman zuzena egon dela ebatziko da kargu publikoak, haren mendeko erakundeek, eskuordetze edo ordezkatzearen bidez, edo haien gainekoek haiek proposatuta, enpresa, sozietate edo erakunde haiei buruzko ebazpenak eman balituzte, edo erakunde haiei buruzko ebazpenen bat hartu den taldeko organoen saioetan esku hartu balituzte, haientzat eskubideak edo aldeko banakako egoera juridikoak ekarri dituzten prozeduretan”.

21/11 

Arrazoa “harreman zuzena” kontzeptua osatzea da. Kargu publikoak sozietate, enpresa edo erakundeen aldeko ebazpenak ematea harreman baten alderik ikuserrazena izan daiteke, baina gerta daiteke talde organoen saietan parte hartuz ere eraginen bat egotea eta, beraz, kasua ere jaso behar da, zalantza edo susmo oro saihesteko. Horrela jasotzen du Estatuko araudia, egoera era zabalagoan zehaztuz, eta zuzenagoa deritzogu horri.

Era berean, eta iradokitako aldaketaren ildo beretik, hirugarren idatz-zatiko 2. paragrafoa kentzea proposatzen da.

18.1. artikulua. Jardueren aitortpena

Artikulu honetako lehen idatz-zatiaren idazketa hobetzea gomendatzen dugu, kargu publikoa utzi ondorengo urte bietan egingo diren jarduera pribatuen aitortpenari dagokionez. Izan ere, gure iritziz, egungo testuak gaizki ulertzea eragin dezake, aitortpena egin behar den uneari dagokionez.

21.1. artikulua. Balioen eta finantza aktiboen kontrola eta kudeaketa

Lehen idatz-zatia testu honekin osatzea gomendatzen da: “Kudeaketa mandatu horren iraupena administrazioko kargua betetzen den bitartean luzatuko da”.

Hori testutik ondoriozta badaiteke ere, ez da berariaz esaten, eta uste dugu beharrezkoa dela hori eranstea.

V. kapitulua: Legean xedatutako betebeharren kudeaketari buruz (22. artikulua eta hurrengoak)

21/11j

Hasteko, artikulua honen izenburua honela osatzea proposatzen dugu: “Legean xedatutako betebeharren kudeaketa eta kontrolari buruz”.

Proposatutako testuko 25. artikulua (Egiaztatzea eta informazioa) xedatzen duenez, Gatazken Bulegoak jarraipena egingo du kargu publikoek euren jardueren eta ondasun eta ondare eskubideen aitortpenak aurkezteko betebeharrak betetzen dituzten egiaztatzeko, eta hori kontrola da berez. Hori dela-eta, kudeaketa aipatzea ez da nahikoa, eta kontrola ere erantsi behar da.

Hirugarren xedapen iragankorra. Xedapen arautzaileen indarraldia

Xedapenaren izenburua aldatu eta “Xedapen arautzaileen lege garapena eta indarraldia” jartzea gomendatzen da, baita honakoa xedatzen duen lehen idatz-zatia eranstea: “Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio Lege honen aplikazioak eta garapenak eskatzen dituzten arauak onartzeko”.

Aurreproiektu honen artikuluetan xedatzen denez, zenbait arautegi egingo dira, baina ez da lege garapen horri buruzko artikulurik jaso, eta arautegi berririk ematen ez den bitartean egungoek iraungo dutela baino ez da adierazi.

V. ONDORIOAK.

EGABek ontzat jotzen du Kargu Publikoaren Jokabide Kodea eta haren bateraezintasunen araubidea arautzeko Legearen Aurreproiektuaren izapidetzea, erakunde aholku emaile honek egindako oharbideekin.

Bilbon, 2011ko abenduaren 23an

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos

